

EUSKO JAURLARITZAREN HAMAR PROPOSAMEN EUROPAKO INBERTSIO ETA EGITURA FUNTSETARAKO (EIE FUNTSAK) 2020TIK AURRERAKO

Etorkizuneko Urte Anitzeko Finantza Esparruari buruzko hausnarketaren eta etorkizuneko kohesio politikaren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzak EIE Funtsei buruzko proposamen hauek aurkeztu ditu, espiritu guztiz Europazalearekin eta EBko eskualdeen kohesio prozesuari laguntzeko asmoz. Europaren integrazio proiektuarekin duen konpromiso irmoa gogorarazten du Jaurlaritzak, denok nahi dugun elkartasunaren, justizia sozialaren eta demokraziaren balioetan oinarritutako etorkizun baketsua baitakarkigu.

1. Baliabide gehiago Europa gehiagorako

Kohesio Politikak Tratatuaren 174. artikulua helburuak nahikotasunez eta modu eraginkorrean bete ditzan, haren efizientzia bermatzeaz gain, EBk bere finantza zuzkidurak nabarmen areagotu beharko lituzke:

- Tresna kontraziklikotzat hartu ahal izateko, hau da, krisi uneetan, azken boladan gertatutakoetan bezala, Tratatuaren helburuak mantentzeko gaitasuna izan dezan. Aurrekoa, adibidez, erresilientzia gaitasun txikiagoa duten eskualdeetan bermatutako inbertsio publikoaren gutxieneko mailen bitartez gauzatu liteke.
- Europa Sozial handiagoa konkretatzen lagundu eta bultzatu ahal izateko, hau da, eskubide sozialen Europako zutabearen ezartzen den bezala, baliabideak eta neurriak erabiliz izaera sozialeko "europar" mekanismoak segurtatzeko (Europako langabezia aseguru, Europako gutxieneko soldata, bermatutako edo gizarteratzeko gutxieneko errenta eta abar).

2. Lurralde kohesioa

Batasuneko herritar guztientzat aukera baliokideak lortzeko helburuak, bizilekua edozein izanda ere, indarrean dirau. Ildo horretan, Batzordeak elikagaien eta nekazaritzaren etorkizunaz oraintsu argitara eman duen Komunikazioan¹ jaso dituen planteamenduekin bat egiten dugu, "landa-egiaztapen" mekanismo bat sustatzeari eta landa oparotasuna sustatzeko makropolitikaren, politika sektorialen eta EIE Funtse guztien eragina ahalik eta gehien indartzeko "landa leiar" bat aplikatzeari dagokienez.

Era berean, Batzordeak sektore industrialak duen urgentzia ohartaraziz egin duen planteamenduekin bat egiten dugu (horrek eraman zuen 2020ko BPGd-ean industriaren kuota % 20 igotzeko helburua jartzera). Europako industriarako parametro erabakigarrienak lurraldearekiko lotura eta giza faktorea direla deritzogu, eta EBren politika industrialak eta kohesio politikak hobeto koordinatzeko eskatzen dugu.

Ildo horretan, argi eta garbi lurraldera begira dagoen politika batek, kohesio politikak bezala, bere helburu tematikoen artean arazo espezifikoak dituzten eremuetarako laguntza eduki behar du bai landagunean eta arrantza arloan bai globalizazioari eta merkatuen liberalizazioari lotutako arazoak dituzten zonaldeetan, bereziki Europar Batasuneko eremu industrializatueta.

¹ COM (2017) 713 azkena, 2017-11-29koa. 25. or.

Azken finean, EIE Funtz guztiek **lurralde garapen integratu eta koherenteko estrategia bakar bati** erantzun behar liokete (adibidez, funts askotako programa bakar baten bidez), non estrategia horrek hirigune, industriagune, landagune (bereziki mendigune) eta arrantza eremuen artean lotura egokiak bermatuko lituzkeen, azken helburua ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa izaki. Horretarako, herri administrazio arduradunetan koordinazio eta gobernantza mekanismo egokiak ezarri behar lirateke.

3. Europa 2020 Estrategia eta Europako Sei Hilekoa

Kohesio Politikaren lurralde-eragile garrantzitsuak izanik, Eskualdeak (eta egotekotan, Eskualde Estrategiak) gehiago hartu behar dira kontuan analisi eta erabakitze prozesuetan, bai Europaren hurrengo Estrategiaren nondik norakoa eta edukia zehazterakoan bai Europako Sei Hilekoaren prozesuaren bitartez estrategia ikuskatu eta aplikatzean.

Europako Sei Hilekoaren prozesuan, Eskualdeen lankidetzak ezinbestekoa da Europako Batzordeak herrialdeka formulatzen dituen berariazko gomendioetako helburuak lortzeko; beraz erreformako programa nazionalen helburuak, lehentasunak eta planak diseinatzerakoan eskualdeen parte hartzea ziurtatu behar litzateke.

Beste alde batetik, EIE Funtzen eraginkortasuna gobernantza ekonomiko onarekin (baldintzazkotasun makroekonomikoa deritzonarekin) lotzen duten neurriei buruzko xedapen komunak Arautegiaren 23. artikulua aldatu egin behar da, gehiegizko defizita izan ez duten eskualde zerga-autonomiadunetan EIE Funtsekin kofinantzatutako programak Europako Batzordearen balizko etete erabakitik babestuta gera daitezen, artikulua horretako xedapenak aplikatuz.

4. Europako lurralde lankidetzak gehiago (ELL)

Europako lurralde lankidetzak helburua da, Europari balio erantsi handiagoa ematen diona. Bestela nekez burutuko liratekeen mugaz gaindiko, nazioz gaindiko eta eskualdearteko proiektuak finantzatzeko dituen. Bere europar balio erantsia eta EBren egituratzailea eztaba da.

Eskualdeen arteko lankidetzak maila bitan indartzea planteatzen da:

- Funtzak gaitzea, europar interes komun batek batzen gaituen beste eskualde aurreratu batzuekin Europa mailan abangoardiako proiektuak garatzea lagundu ahal dezaten.
- Funtzak gaitzea, Arku Atlantikoaren bitartez Makroeskalde kontzeptua garatzen lagundu ahal dezaten, horrela etorkizunean egongo diren baliabideak aprobetxatu ahal dituzagun eta, aldi berean, EBren eskualde konpromisoa gauzatu ahal dezagun.

5. Adierazle berriak

Kohesio politikako funtsak esleitzeko irizpideak zehazteko Eurostatek emandako aldagai objektiboak erabili behar dira. Biztanle bakoitzeko BPGd-z, biztanleriaz edo langabezia nazionalaz edo eskualdekoaz gain, sisteman Europako balio erantsia duten beste adierazle batzuk sartu behar liratekeela deritzogu, esate baterako, aldaketa demografikoa, trantsizio industrialak edo inklusio sozialak.

Gainera, eskualderik garatuenen kasurako, erosahaltenaren parekotasunezko BPGd/bizt. aldagaia erabiltzeari lotutako efektuek estatu konkretu batekoak izatearen efektua aintzat hartu beharko luketela deritzogu, Europaren testuinguruan estatuaren egoera erlatiboa balioztatze aldera. Estatu jakin bateko eskualde guztiei aplikatutako prezio indizeek **"aberastasun estatistiko konparatu handiagoaren" efektua** sortzen dute estatu horietako eskualde oparoenetan estatuok hain oparoak ez direnean, estatu oparoetako eskualde oparoekin konparatuta.

6. EIE Funtsak eskualdeketzea

EIE Funtz guztiak eskualdeketzea eskatzen dugu, euren eskualde proiektzioarekin eta euren jomuga diren eskumenen eremuarekin, eskualdea, koherentzia mantenduz. Horrela, emaitza eraginkorrakoak eta positiboagoak lortuko lirateke.

Gainera, oraingo sistemarekin, ez da erraza Autonomia Erkidegora itzultzen diren eskualde anitzeko eragiketa programen funtsen trazabilitatea lortzea.

Ildo horretatik beretik, Gazte Enpleguaren Ekimena (YEI) osorik eskualdekotu beharko litzateke. Gazteen langabezia proiektu zabal baten eta epe luzeko estrategia baten esparruan jorratu behar litzateke, gazteak lan merkatura heltzea eta bidezko eta kalitatezko lan aukerak izatea bermatze aldera.

7. Finantza tresnak

Eusko Jaurlaritzaren iritzia da "ETE Ekimena" finantza tresna oso lan ona egiten ari dela Euskadiren kohesio politikan. Horren efektu biderkatzaileak bi bider handiagotu du espero zena. Hala ere, askoz hobe izango zen emaitza, lehenago abiarazi ahal izanez gero.

Horregatik, 2020 urtearen ondorengo denboraldirako ikuspegi onena ikuspegi eraikitzailea da: diru laguntzak eta finantza tresnak elkarren aurka jarri beharrean. Etorkizuneko kohesio politikan finantza tresnek balio handiagoa non eta noiz eransten duten zehaztea da kontua: Eusko Jaurlaritzak uste du hori lortzea badagoela haiek konfiguratu aurretik jasotzen badute eskualdeek EBren laguntza; hau da, Europako Batzordeak eskualde laguntza aurreratu dezala, oraingo 2014-2020 aldiko ETE Ekinbidearen kasuan gertatu den bezala. Horrela, kohesio politikaren funtsei eman nahi zaien izaera antiziklikoa indartuko litzateke.

8. Kudeaketa sinplifikatzea: proportzionaltasuna

EIE Funtsen kudeaketan eskatzen diren eskakizunei dagokienez proportzionaltasun erregimen bat aplikatu dadila proposatzen dugu, Programa Operatiboen bolumena kontuan hartuta.

EBren programak zuzen eta modu eraginkorrean kudeatzeko zorrotasuna eta konpromisoa behar dira. Kudeaketa-, ebaluazio- eta kontrol-arau eta -baldintza kopuru (arautegiak; lan dokumentuak; orientabideak; gidalerroak eta abar) handi baten mende egonda (eta gainera horiek in itinere aldatuta), osorik kontuan hartzea zeharo zaila egiten duten zailtasun kopuru eta maila handia sortzen daprograma guztien multzorako. Hori bereziki nekagarria da kantitate txikiko laguntzen programetarako. Ahal den neurrian proportzionaltasun erregelak ezartzea komeni litzateke, eta, nolahi ere, kudeaketa benetan sinplifikatzea bilatu behar da (adibidez, eskualdeko agintariekin konfiantzako hitzarmenak eginez).



Illo horretan, autonomia erkidegoek EIE Funtzen kudeaketa partekatuko prozesuan zeregin handiagoa edukitzeari garrantzitsu deritzogu. Prozesu guztietan erantzukizun handiagoa izateari esker, autonomia erkidegoak, borondatez, eskualde programen Agintaritza Kudeatzaileak izan litezke. Aldi berean, Europako Batzordeari eskualdeen kontrol eta fiskalizazio sistemetan konfiantza handiagoa eduki dezala eskatzen diogu.

9. Espezializazio Adimentsurako Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiaren (RIS3) prozesuan jarraitzea

Eusko Jaurlaritzak balioespen oso positiboa egiten du Euskal Herriko Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren garapenari buruz. Garapen Ekonomikorako orientazio tresna erabakigarri bat da, aldi berean koordinaziorako ditugun barne prozesuetan sakontzen laguntzen duena bai maila publikoan bai maila pribatuan, bai eta gure kanpo koordinazioa hobetzen ere, eta modu efizienteagoan lankidetzan aritzera garamatzaten sinergiak sor ditzaketen RIS estrategiak dituzten eskualdeak identifikatzen laguntzen digu. Beraz, Euskal RIS3 deritzon prozesu bizi eta ebolutibo honen esparruan lan egiten jarraitzeko konpromisoa agertzen dugu.

10.a EBren migrazio politikei laguntzea

Eusko Jaurlaritzak ulertzen duenez, EIE Funtsek zeregin garrantzitsuagoa bete behar dute EBnean finkatzen diren etorkinentzat enplegu aukerak eta diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerak garatzen.

Halaber, dei egiten du Valetta Gailurreko Bileraren emaitzak aplikatzeko, migrazioaren funtsezko kauei ekinez eta migratzaileen jatorrizko eta pasabideko herrialdeetan enfasi handiagoa jarritz.